

## Industria Diseinuko Arrautza Jaurtiketa XII. lehiaketaren edizioa Mondragon Unibertsitatean.

2011/05/16

Arrasate, 2011ko maiatzaren 12a. Atzo, Industria Diseinuko Arrautza Jaurtiketa lehiaketa tradizionalaren XII. edizioa antolatu du Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak. Lehiaketa horretan unibertsitateak ikasle eta irakasleen lana saritzen du, hain zuzen, arrautza jaurtitzean ongien babesten duen tramankulua egin dutenena. Hiru kategoria (distantzia, diseinua eta hegaldia) lanik efektibo eta berritzaileena saritzeko.

Guztira lehiaketan hiru eta bost kide arteko 30 taldek hartu dute parte, gutxi gorabehera 120 parte-hartzaile inguruk. Horiek guztiak unibertsitate honetako Goi Eskola Politeknikoko ikasle eta langileak dira.

Lehiaketaren ideia unibertsitate honetako ingeniartzako irakasleek izan zuten. Ekimen horrekin, industria-diseinuko ikasleen diseinatzeko eta berritzeko gaitasuna sustatzea nahi izan zuten. Pixkanaka, ekimenak oihartzun handia izan zuen unibertsitateko gainerako ikasleen artean. Hori dela eta, lehiaketa gainerako ikasle eta karrerei ere zabaltzea erabaki zuten. Goi Mailako Eskola Politeknikoak bere zaindariaren, San Pankrazioren, egunean antolatzen dituen jardueren parte da Arrautza Jaurtiketa, arrakastatsuenetakoa bilakatuz.

Hona hemen irabazleak kategoriatan sailkatuz:

- **Hegaldi luzeena:**

**GRT.**

Eren Larena  
Xabier Sanchez  
Ekaitz Arruarte  
Marco Alijostes

- **Tramankulurik politena:**

**PEPIN FLOWER**

Nere Carrera  
Nerea Barrasa  
Irati Arrillaga  
Mikel Gurrutxaga

- **Hegaldi politena:**

**HEGLIZE**

Jon Lamborena  
Antton Izaguirre  
Alez Altuna



Arrautz jaurtiketako irabazleak